



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 10
Urtea/Año 2012
Urria/Octubre

AURKEZPEN-GIDA 2012-13

Ikasturtearen hasierarekin batera, honen Aurkezpen-gida eman dizuegu. Bertan, geure antolakuntza eta jardueren buruzko informazio baliagarria aurkituko duzue. Formatua aldatu diogu, erabilgarriagoa izan dezazuen. Esaiguzue zeintzuk diren interesgarrien iruditzen zaizkizuen arazoak.

ORDIGARRIAK

Beken eta ikasteko gelen eskaerak

Ikasturte honetarako beken eta ikasteko gelen eskabideak betetzeko epea irailaren 24an zabaldu dela gogoratzen dizuegu, urriaren 5ean amaituko delarik. Deialdiaren oinarriak eta bestelako informazioa eskura duzue Eskolako Administrazion eta Atezaindegian, baita bertako web-orrian ere.

Ikasturtearen lehen hilerokoaren ordainketa

Ikasturtearen lehen hilerokoa, urriaren bigarren hamabostaldiaren hasieran jorriko dizuegu. Dakizue, bertan matrikulatuta zaudeteneko irakasgaiei dagozkien tasan lehen kuota dago; matrikula uztaian ordaindu ez duzuen, lehen hileroko honetan gehituko zaizue dagokion zenbatekoa.

ONGI ETORRIA

Trailaren 10ean eman diogu hasiera ikasturte berriari. Geure ongi etorria guztioi. Orain, Musika Eskola Digitala aldizkariak ematen dizue, 2012-13 ikasturte berri honen lehen alearen bidez. Musika Eskola Digitala-k, hilabetero, geure zentroaren gertakari nagusien berri emango dizue. Era berean, geure irakaskuntza-estilo eta geure antolakuntzaren zenbait alderen garrantziaren inguruko hausnarketak ere bilduko ditu MED-ek

ESKER MILA

Hogeita bostgarren ikasturtea joan zaigu eta, berarekin batera, zegozkion ospakizunak. Gelditu den ikus-entzunezko erregistroa polita dela uste dugu eta, horregatik, zuen eskura jarri nahi dugu. Bere garaian esango dizuegu nola lortu; baina bitartean, bai aktiboki bai eta ikusle gogotsu modura antolatutako ekitaldietan parte hartu zenutenei, **ESKER MILA**.

UDAN ERE JARDUTEN

Dagoeneko askok dakizue, Musika Eskolako taldeen jarduerak ez dira gelditzen udan. Gure Jazz-konboetako batek, erreztaldia eman zuen aurtengo Sea Week



barnean; uztaillaren lehenengo egunetan, geure "Andrés Isasi" Abesbatza Ezkaraira joan zen ikasitakoa erakustera; eta azkenaldian ohi denez, txistulariek Areetako kaleak animatu zizkiguten era Mesedeetako jaietan.

AGENDA

Urria

Atxuriko Gizakundeko elizan, Bilbon, urriaren 20an arratsaldeko 9:00etan, **Hamaika Kamerata Flauta-taldeak eta "Andrés Isasi" Akordeoi-taldeak**, Beti Jai Alai Dantza-taldea eta Jatorki Abesbatzarekin batera, diziplina anitzeko ikuskizuna (musika instrumentala, korala eta dantza), eskainiko digute, musika eta gastronomia erlazionatuko dituen egitarauarekin. Kontzertu honetarako sarrea doan izango da.

MUSIKA IKASTEAK AZKARTU EGITEN GAITU

Musika-prestakuntza izan duten eta ez duten gazteak konparaturik egindako duela gutxiko ikerketek, zera adierazten omen dute: umezaroan ikasketa musikalak egindakoek entzumen-pertzepzio handiagoa, komunikazio-abilezia hobetoagoa eta funtzio exekutibo hobetoagoa garatzen dutela; azken honek ikaskuntzarako funtsezko gaitasunak ditu barne, arreta, antolakuntza, epe laburreko memoria eta arrazoibidea besteak beste.